

ASTE SANTUKO LANETAN PARTE HARTZEKO GONBITA

Herritar estimatuak:

Seguran, Aste Santuaren inguruko tradizioak 300 urte baino gehiago ditu. Prestaketa lanetan ari gara eta denon laguntza behar dugu. 300 herritar inguruk parte hartzen dugu bertan.

Apirilaren 17an eta 18an, Ostegun eta Ostiral Santuan, Elizkizun bereziak egingo dira eta prozesioak irtengo dira gure kaleetara. Mesedez, erdi gunean kotxeak kaleetan ez aparkatu prozesioak irauten duten bitartean.

Lan ezberdinetan parte hartzeko deialdia egiten dizuegu.

APIRILAK 5, LARUNBATA. PARROKIAN:

Santuak jaitsi eta atontzea, 9:00etan

Aingeru jantzi arropak jasotzea, 10:30ean



APIRILAK 17 eta 18, OSTEKUN eta OSTIRAL SANTUA.

Osasun Etxean: Nazareno eta Penitente jantzi nahi dutenak, 16:00etan

Parrokian:

- Monagilo janzteko meza hasi aurretik
- Santu Eramailleak, 18:00etan
- Kandelak eramateko meza ondoren
- Ostegun Santuko prozesioaren ondoren BELA egin nahi dutenek, zozketan parte Hartzeko Sakristira joan beharko dute.



MAIATZAK 10, LARUNBATA. PARROKIAN

Dena jasotzera, 9:00etan

Eskerrik asko eta laster arte, Seguran, 2025eko martxoaren 31n.

ASTE SANTUA TALDEA